



ELKARRIZKETA: IBON SARASOLA, HIZKUNTZALARIA

Arrasate

P R E S S U

1998ko
Apirilak 30
405. zenb.



Maiatzaren 1a Arrasaten

IKUSPEGIA: JUAN LUIS AZKARATE • KIROLAK: KEPA ARKAUZ
IRITZIA: ASIER ARANGUREN • DIRUAREN HOTSA: AUTORIK SALDUENA ARRASATEN

muebles

GRUPO **ARKAUZ**

**ERAKUSKETA
BERRIZTUA!**



**ALTZARI-DISEINUA
APAINKETA**

**ZAPATU
ARRATSALDEETAN
ZABALIK!**



Grupo Arkauzen denak dira abantailak.
Zatoz, eta daukaguna ikusi bezain laster, etxera eraman nahi izango duzu.
Aprobetxa itzazu Grupo Arkauzen abantailak.

A R E T X A B A L E T A

Araba etorbidea, 20 • Tel./Faxa: 79 23 51

Eolo

Hainbat elkarte ekologista eta Deba Garaiko mendi talde guztiak Elgeako zentral eolikoaren aurka azaldu dira. Apirilaren 21ean prentsaurrekoa eskaini zuten baina ni, han nengoela, ez ninduten batere konbentzitu. Eki, Eguzki, Besaide, Pol-Pol, Murruxiko etabarrekoen bozeramaileak energia eolikoaren alde azaldu ziren, baina Elgeako proiektuaren kontra.



Juan Luis Azkarate

Beste argudio batzuen artean, ekologistek eta mendizaleek esaten dute Iberdrola proiektuaren atzean dagoela (hala da, bai), eta zentralaren helburua, energia garbien izenean, dirua irabaztea baino ez dela. Arrazoi hau oso sinplea iruditzen zait niri.

“Oraingo honetan ekologisten jarrera kontraesanez beterik dagoela iruditzen zait”

Badakigu sistema kapitalista batean bizi garela, eta hau ez dela paradisua, baina gaur egun enpresa guztien helburua dirua irabaztea da. Hau horrela ez balitz, ONGren batek eta Fundazio filantropikoren batek hartuko lukete beren gain Elgeako zentral eolikoaren eraikuntza.

Iberdrolarekin batera, erdibana, Jaurlaritzaren Energiaren Euskal Erakundea dabil buru belarri proiektuan sartuta. Hemen ere, kontra: “diru publikoarekin mendietan txikizioak egiten ari dira”, esango lukete ekimena guztiz publikoa balitz.

“Mendiaren industrializazioaren” aurka ere azaldu dira. Energia eolikoaren alde bagaude, mendiren bat “industrializatu” egin beharko da, derrigorrez. Ez gara

Tarifan bizi, eta hemen haizeak bakarrik alturretan jotzen du gogor. Zein da, orduan, ekologisten soluzioa, ilargian ipini zentral eolikoa, edo non?

Askotan egokitu zait Lizargarateko aterpetxera joatea eta uste dut, gutxi gorabehera, ezagutzen dudala ingurua. Elgean Eolok beti jotzen du gogor, eta nire ezjakintasunetik esango nuke toki aproposa ematen duela horrelako proiektu bat bertan gauzatzeko. Balore paisajistikoei dagokienez, denak du bere balorea baina, tira, hura ere ez da Ngorongoroko Parke Naturala.

Nik ere zentrala beste nonbait kokatzea nahiago dut, horrela jarraitu ahal izango dut Elgeara joaten paseatzera, lasai asko. Baina hortarako zuzenago iruditzen zait esatea energia eolikoaren kontra nagoela, honek mendiaren okupazioa eskatzen du eta.

Esanak esan, errurik handiena erakunde publikoena da, beti ekintza kontsumatuen politika erabiltzen dutelako. Baina, oraingoan, ekologisten jarrera kontraesanez beterik dagoela iruditzen zait.

“Arrasate momentu honetan zerbaiten lantza da Euskal Herrian. Eta euskara batuari bizkaiera kontrajarri nahi diotenen aurrean, Arrasatek frogatu du arazoa ez dela bizkaiera, Bizkaia baizik”.

Ibon Sarasola

813

auto erosi zituzten iaz arrasatearrek

1997an 813 berebil berri erosi genituen mondrogoetarrok. Arrasateko Udaleko erroldan kopuru hori agertzen da, behintzat. Modelorik salduena Renault Megane izan zen, Opel Astra eta Ford Escort-en aurretik.

Z E R D E L A E T A ?

Markos Vitoriaren omenaldian

Gorazarre merezia eta hunkigarria Markos Vitoriak joan den larunbatean jaso zuena. Hala ere, hiru galdera etorri zitzaizkigun burura udaletxeko pleno aretoan egin zen ekitaldia ikusita.

- Non ziren Arrasateko indar biziak? UGTz gain, Arrasaten badira ELA, LAB, CCOO, ESK-KUIS, Ezker Sindikala... PSOEz landa badira hemen beste alderdi batzuk. Inor ez zen hurbildu aspaldiko sindikalistari zorianak ematera.
- Zergatik ez zen hitz bat bera ere euskaraz egin? Markos sozialista euskalduna da.
- Zer dela eta ez zuen omenduak hitz egin? Gorazarre arraroa omenduak hitz egiten ez duenean.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatova kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Marian Porcel, Naiara Gorroho. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26) **Diseinua:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Maria del Campo, Iban del Campo, Ixaro Antola, Bixente Azkarate, Joverra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orozbergosa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteta Saria, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28).
©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, OHati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Maiatzaren 1a, 1936. urtean

Arrasateko Udaleren laguntzaz	Gipuzkoako Foru Aldundien laguntzaz	Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

GU b
baie

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Osteguna 30
- Gáuez: Español, Iturritz
- Ostirala 1
- Egunez: Mozos, Bergara
- Gáuez: Corcuera, Musakola
- Ostirala 2
- Egunez: Camacho, Bergara
- Gáuez: Irizar, Erguin
- Larunbata 3
- Egunez: Camacho, Bergara
- Gáuez: Amezua, Santa Marina
- Igandea 4
- Egunez: Puy, Bergara
- Gáuez: Zabala, Zárugalde
- Astelehena 5
- Egunez: Guallar, Bergara
- Gáuez: Ruiz, Magdalena
- Asteartea 6
- Egunez: Estella, Bergara
- Gáuez: Morales, San Andres
- Asteazkena 7
- Egunez: Mozos, Bergara
- Gáuez: Azcoaga, Ferrerías
- Osteguna 8
- Egunez: Camacho, Bergara
- Gáuez: Español, Iturriotz

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

- Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
- Iguaiatorioa 79 05 00
- Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 79 39 00
- (emakumeak) 79 44 11
- Buru osasunerako zentrua . . 79 90 11

Gurutze Gorria

- Bergara 76 55 76

DYA

- Antzuola 78 71 57

Anbulatorioak

- Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
- Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
- Espezialitateak 77 05 78
- 77 12 64
- Oñati 78 08 52
- Eskoriatza 79 98 58
- Arexabaleta 79 74 58
- Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak

- Gipuzkoako ambulantziak . . . 45 87 44

Udaltzaingoa

- Oñati 78 04 11
- Bergara 76 14 69
- Arrasate 79 14 39
- Arexabaleta 79 10 52
- Eskoriatza 088

Ertzaintza

- Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak

- Udal taldea 79 09 00
- Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
- Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088

Matxurak

- Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
- Argindarra (Iberduero) 12 01 62
- Gasa 900 40 05 23
- 79 78 44
- 79 76 78

Garraloak

- Taxiak 79 12 22
- PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

- Iturbide Egoitza 79 72 11
- Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa

- KIUB-OMIC 79 51 55

Monterron liburutegia

- Monterron 77 01 05

Irratia

- Arrasate Irratia 79 58 77

Euskararen Aldeko Hitzarmena

Gaizki urlertu bat tarteko, joan den asteko erreportajeaz ez genituen sartu Euskararen Aldeko Hitzarmena sinatu duten azken hamar erakundeak. Hauek dira:

- Aldibi Autoak
- Arrasate Musikal
- Emun Kooperatiba Elkar-tea
- Ezker Sindikala

- Euskalan
- GATC
- Halcon Bidaiak
- Jubar Ateak
- Lizarralde Kirolak
- Deba Garaia Beti Prest

Kultura Elkarteak. Hauetako gehienak hobekuntza mailakatua-ren bidetik abiatuko dira, udalak neurritan prestatu-tako planetan.

Asteburuetakoz kazetaria

Aste honetan ere aurpegi berria aurkeztu nahi dizuegu: Lierni Uribarren izango da hemendik aurrera asteburuetakoz kazetaria. Leioan egin zituen kazetaritza ikasketak. Ikusentzunez doktoretza ikastarok ere egin ditu.

Liernik Unai Loidi ordezkatu du asteburuetakoz lanetan. Unairi mila esker egindako guztiagatik. Adio!



Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 79 76 58
ARRASATE

M MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 71 24 25

Jarriko zenioke amaren abizena zure umeari?

Orain dela gutxi onartu den legediak posible egiten du seme-alabei amaren abizena jartzea



Txaro Andres
50 urte
langilea

Nik bai. Erabaki honen alde nago, erabat. Gero seme-alabek berriz aldatu nahi badute, egin dezatela, baina oso ongi iruditzen zait.



Gorka Gaztainza
33 urte
medikua

Nire kasuan nire abizena daramate umeek, baina ez nuke arazorik izango alderantziz izango balitz. Ongi dagoela deritzot.



Gorka Artia Mendibil
18 urte
ikaslea

Orain arte ohitura alde-rantzizkoa izan da, baina nik neuk ez nuke arazorik izango amaren abizena aurretik jartzeko. Egingo nuke.



Paula Martin
45 urte
etxeko andrea

Laguna ados egonez gero, jarriko nioke. Berdintasuna lortu nahi badugu, erabaki aproposa da hau.



Enriqueta Garcia
70 urte
jubilatua

Bai, zergatik ez? Eskubide bera dute aitaren edo amaren abizena eramateko.



Almudena Martin
31 urte
etxeko andrea

Bai, jarriko nioke. Bestela, emakumearen familiako abizena galdu egin daiteke.



Jose Luis Garcia
38 urte
langilea

Bai, bai. Berdinak gara ama eta aita, beraz berdin dionoren abizena eraman aurretik. Ni ez nau arduratzen abizena galtzeak.



Pedro Cavillanos
37 urte
ingeniarria

Bai, zergatik ez? Zotze gin beharko genuke ados jartzeko. Hori izango litzateke arazoa: zein aukeratu aurrean jartzeko.

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A
Etxean gaixoren bat badaukazu, zuri laguntzeko prest gaude

- Ohe artikulatuak
- Zirkulazioa eragiteko koltxoak,...

Zuk behar duzun laguntza guztia!
Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

Ipek Denda



Iturriotz, 19
(Herriko plaza) ARRASATE

Arrasate

LANAK


SAN FRANTZISKON
Biribila egiten ari dira.

AZATZA ETXEETAN
Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua.

KONTZEZIÑO AUZOAN
Kolektorea eta urbanizazio lanak. Bidea asfaltatzen ari dira.

TAKOLON
Biribil berria egiten ari dira. Luze joko du.

IGNACIO ZULOAGAN
Gasa sartzeko zuloak.



Biztanleak: 24.571
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro


Eguraldiaren aurreikuspena



OSTEGUNA 30



OSTIRALA 1



LARUNBATA 2

Zeru lainotsuak izango dira. Tarteka euria egingo du. Elurra egin dezake gailurretan. Tenperaturak jaitsi egingo dira.

Egun lainotsua izang da. Euria tarteka ekaitza bihur daiteke. Tenperaturak ez dira aldatuko. Haizeak Iparraldetik joko du.

Tarteka zeru lainotsuak. Euri zaparradak etor daitezke. Tenperaturak ez dira aldatuko. Haizeak Iparraldetik joko du.

Ilargia



ilberria

Apirilaren 26tik maiatzaren 4ra arte ilberria izango da.

Mezak


San Frantzisko
(Frantzizkotarren elizan Parrokia berri arte)
Larunbatean
09:00 (elebiduna)
Igandean:
09:00 (euskaraz)
10:00 (euskaraz)
11:00 meza nagusia (Erramu bedeinkapena eta prozesioa egingo da.)
12:30 (erdaraz)
19:00 (erdaraz)

Uribarri
Larunbatean
19:00 (elebiduna)
Igandean:
11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres
Larunbatean
19:00 (elebiduna)
Igandean
10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:00 (erdaraz)
13:00 (erdaraz)

Santa Teresa
Larunbatean
19:00 (elebiduna)
Igandean
10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila
%91,7




Distantziak

Arrasate									
121	Baiona								
690	579	Bartzelona							
57	170	620	Bilbo						
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela					
72	50	529	119	1.088	Donostia				
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz			
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea		
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril	
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris

Kabía

ALTZARIAK



DEKORAZIOA

Konfiantza osoz.

Gipuzkoa Etorbidea, 28 • ARRASATE • Tel.: 79 27 70

30

osteguna

■ ZINEA

Desmontando a Harry, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan

■ SAN ANDRESKO JAIK

Arratsaldeko 18:30etan hasiko dira San Andresko jaiak eta gaueko 23:30etan Karisma taldearen dantzaldia izango da.

■ DOCTOR DESEO KONTZERTUAN

Oñatiko kiroldegian, Doctor Deseo eta Latzen taldeak arituko dira gaueko 22:30etatik aurrera. Zapatisten aldeko jaialdia da, Burdin Kakoi, Otia eta Baoia taldeek antolatua, "Sekula ez eurak gabeko Mexikorik" lelopean.

1

ostirala

■ ZINEA

Desmontando a Harry, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta gaueko 22:00etan.

■ MENDI IRTEERA

Naranjo de Bulnesera joateko mendi irteera antolatu du Besaidek. Irteera maiatzaren leian izango da, goizeko 06:00etan Garibai kalean. Mendi irteerak igandera arte iraungo du.

■ MUSIKA EMANALDIA GAZTETXEAN

Arrasateko gaztetzeari antolatu du Maiatzaren Lehenean. Ricify Galesko taldea eta Hatred, Londreskoa arituko dira gaztetzeari bertan. Kontzertua gaueko 21:00etan hasiko da.

■ SAN ANDRESKO JAIK

10:00etan Iturripen pilota txapelketako finalak. 12:00etan Aerobic erakustaldia eta fanfarrea. 12:30etan izango da meza nagusia. 13:30etan herri bazkaria egingo dute zaharren omenez. 16:00etan eskulan lantegia. 18:00etan umeentzako karoakea. 19:00etan fanfarrea. 23:30etan dantzaldia egingo da Kentuki taldearekin.

2

larunbata

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Hardcore kontzertua antolatu dute Arrasateko gaztetzeari. Berлиндik Slamtilt taldea arituko da zuzenean, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Haiekin batera Gospel Killers arrasatearrak arituko dira.

■ SAN ANDRESKO JAIK

09:30etan botako dituzte txefleroak. 11:00etan marrazki lehiaketa izango da. Ordu berean hasiko da giza-futbolina. 12:00etan fanfarrea aterako da. 16:30etan minimo-toen erakusketa. Ordu berean izango da umeentzako tarta lehiaketa. 18:30etan txokolatada eta buruhandien kalejira. 19:00etan fanfarrea aterako da berriz ere eta 23:00etako dantzaldia, Prisma taldeak eskainiko du.

■ ZINEA

Esfera, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta gaueko 22:00etan.

3

igandea

■ AUTO TELEGIDATUEN TXAPELKETA

Arrasateko RC Taldeak antolatu du. Txapelketa honetan hiru motatako autoak arituko dira. San Andresko Gudariaren plazan izango da, goizeko 11:00etatik aurrera.

■ SAN ANDRESKO JAIK

09:30etako diana joko dute. 13:00etan paella txapelketa. 16:00etan II. Bina-kako Mus Txapelketa. 18:00etan auzoko emakume ezkondu eta ezkongabeen arteko futbol partida. 21:00etan jaien amaiera iragartzeko txaplieguak jaurtikiko dituzte.

■ ZINEA

Esfera, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta gaueko 22:00etan.

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 71 24 25

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

IRATI TABERNA
Ferreries kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

4

astelehena**■ LUR AZPIA
DIPOSITIBETAN**

“Aitzkorri Lur Azpian” izeneko diapositiba emanaldia eskainiko da Monterronen, arratsaldeko 19:00etan. Saioa Aloña Mendi Espeleologia taldeak eskainiko du.

■ ZINEA

Esfera, Alai zinemari, 19:00etan eta 22:00etan.

6

asteazkena**■ PIRINIOEN INGURUKO
DIPOSITIBAK**

Besaide mendi elkarteak elurretan egindako zeharkaldi buruzko argazki emanaldia eskainiko du asteazkenean. “Pirinioetako Malda Zurietan Barrena” izeneko saioa Monterronen izango da, 19:00etan.

5

asteartea**■ MANASLU
ARGAZKIETAN**

Manaslu mendira egindako igoeraren diapositibak ikusgai izango dira Monterronen, 19:00etan. Koke Lasak eskainiko du “Manaslu 8.163m Izpirituen Jauretxea” izeneko saioa.

■ ZINEA

Esfera, Alai zinemari, arratsaldeko 19:00etan eta gaueko 22:00etan

7

osteguna**■ GAILUR GEHIAGO
ARGAZKIETAN**

“McKinley, Gailur Hotza” izeneko emanaldia eskainiko dute Mikel Aranak, Roman Ezeizak eta Josu Peredak udaletxeko pleno aretoan, arratsaldeko 19:00etan.

**■ HIRU HANDIXEK
HIRU EGUNEAN**

AEDk antolatutako “Hiru Handixek Hiru Egunean” mendi irteera izango da asteburu honetan. Gaur izango da ongietorria 19:00etan AEDren Garaioko aterpetxean. Iluntzean Txan magoa arituko da hantxe. Hurrengo egunean, Zalduondo-Aizkorri-Leintz Gatzaga ibilbidea egingo dute eta iluntzean Euskara elkarteetako gazte-taldeetako partehartzearen inguruko eztabaida egingo dute. Maiatzaren 2an Leintz Gatzaga-Anboto-Urkiola ibilaldia egingo dute eta iluntzean Mikel Urdangarinen saioa antolatu dute. Azkenengo egunean, maiatzaren 3an, Urkiola-Gorbea-Murua ibilaldia egingo dute.

■ UMEEN DANBORRADA

San Joanetako umeen danborradan parte hartzeko izen ematea zabalik dago SUDC elkartearen. Interesatuak 17:30etatik 19:30etara pasa daitezke elkartetik, maiatzaren 30a baino lehen. Danborradako entseiuak asteartean eta ostegunetan izango dira San Viator Txikin, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara.

**■ SAN JOANETAKO
KARTEL LEHIAKETA**

Maiatzaren 2an amaituko da San Joan jaietarako hormirudi lehiaketan parte hartzeko epea. Lehiaketan Arrasaten bizi edo errolatutako edozeinek har dezake parte. Aurkezten diren hormirudiek derrigorrez lelo hau eraman behar dute: “1998 San Juan jaiak Arrasate” edo “98 San Juan jaiak Arrasate”. 100.000 ptako saria dago jokoan. Informazio gehiago udaletxeko Kultura Departamenduan.

■ BIDAIA SEVILLARA

EKINek Sevillara antolatu du bidaiari, maiatzaren azken asterako edo ekainaren lehenengorako. Izena emateko, 77 12 28 zenbakira dei daiteke edo AEDko bulegotik pasa eta Onintzaz galdetu. Izena emateko azken eguna, maiatzaren 18a.

**■ BILERA ARGIBIDEAK
EMATEKO**

Arrasate-Aretxabaleta institutuan argibideak emateko bilera egingo da datorren asteazkenean. HSAOL Batxilergoak eta Heziketa Zikloei buruzko informazioa emateko hitzaldia, arratsaldeko 18:30etan izango da. Bestalde, Arrasate-Aretxabaleta institutuan izen ematea zabalduko dute maiatzaren 4tik 18ra.

USTEAK USTE

Barne hauteskundeak

Sozialistek erabat aldatu dute hautagaiak izendatzeko era. Niri, egia esan, sistema hau askoz ere interesgarriagoa iruditzen zait. Hautsi egiten du partiduaren aparatuak orain arte hautagaiak izendatzeko izan duen monopolioa eta beste ate batzuk irekitzen ditu.

Oraingoan etsita nengoen Almunia irabaziko zuela. Baina, hara non, militanteek ustez galtzaile zena hautatu dute. Hori da barne hauteskundeen handitasuna, egin diren moduan egiten direnean. Beste alderdiek ere hobe lukete halako sistemaren bat onartuko balute.

Arrasateko sozialistei buruz zer esan? Aurrekoan Rosa Diez galtzailea aukeratu zuten. Oraingoan Almunia, galtzailea hau ere. Anekdotak hutsa da, noski. Zerak eman dit atentzioa, ordea: Arrasaten behintzat kanpaina ez dela bat ere igarri ere egin.

Eta alderdiak irekitzen hasita, noizko zerrenda irekiak?

Joxe Aranzabal



Lokala bai, baina ona eta zabala

Asier Aranguren *

Realak Compostelari 1 eta 3 irabazi osteko astelehenean iritsi nintzen Santiagora, eta jakina, ez zegoen taxistari Japon Sevilla aipatu ere egiterik. Oraingoan, ordea, ez naiz Galiziar kirok kazetari modura hurbildu, EHUKo irakasle gisa baizik.

Santiagoko Unibertsitateetik "II Xornadas de Comunicación e Cultura Contemporaneas" en parte hartzeraren gonbidatu ninduten. Izen ponpoxo honen babesean herri komunikabideei buruzko jardunaldiak antolatuz zituzten eta Euskal Herriko panorama aurkeztu behar nuen nik. *Komunikazio lokala Euskal Herrian: Kultura konpromezua eta enpresa eraginkortasuna* uztartuz izenbuaru luzea ipini nion neronek ere ponentziari. (unibertsitatean izenburuek luzeak behar omen dute, kazetaritzan ez bezala).

Jardunaldi akademikoak izan dira eta beraz, praktikoa baino gehiago hausnarke-tari eta pentsamenduari lotu-takoak. Hona hemen, laburbilduz, Santiagon jasotako ideia nagusiak:

1. Globala eta tokian tokiko osagarriak dira milurte honen amaieran. Zenbat eta globalizazioak indar handiago izan, hainbat eta komunikabide gertuagoak behar.
2. Komunikabideak, ikusentzutekoak batez ere, iraultza teknologiko handi batean murgilduta daude. Bide egokiari heltzen dijonak baka-

“
Globala eta tokian tokiko osagarriak dira milurte honen amaieran
”

rrik egingo du aurrera, atzean gelditzen direnek trenan galduko dute eta itxi beharrean izango dira.

3. Instituzioek, boterea daukatenean, komunikazio politikak erabaki eta garatu behar dituzte. Besteak beste legeak eta diru laguntzak euren esku baitaude.

4. Komunikazio lokalak komunitate izaera, ezberdintasuna, giza partahartzea, hurbiltasuna eta nortasun kulturala azpimarkatu eta landu behar ditu. Hori da bere xedea eta hori eskatzen du bere publikoak.

5. Kalitatea eta profesionaltasuna ezinbesteko dira produktuetan, baina komunikabidea publikoa izanez gero, helburu nagusia ez da merkatuaren edo audietziaren kuotarik ahalik eta handiena izatea. Ahaleginak eta indarrak oso ondo neurtu behar dira. Eraginkortasuna da garrantzitsua.

Testuinguru honetan, nik eredu modura ARKoren egitura eta lana aipatu nituen. Hango adituen artean harre-ra oso ona izan zuen. Baina galdera batzuk ere sortu ziren, esaterako: *Arrasate Pressen* edizio elektronikoa bada dagoeneko Interneten?, ATBk hitzartu du Euskaltekin kable eskaintzan kateetako bat izatea?

Erantzunak eta pasadizoak Ribeiro eta zigala artean hausnartu genituen.

* EHUKo irakaslea

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiralean Setatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

OÑATI

1 Herriko musiko gazteak

Larunbatean kontzertu berezia egin zen Santa Anako entzutegian. Parte hartzaileak, Oñatiko musiko gazteak. Pello Zabalaren zuzendaritzapean, musikarako doainak erakusteko aukera izan zuten. Emanaldiaren helburu bakarra horixe zen, hain justu: herriko musiko gazteen doain artistikoa ezagutzera ematea.


BERGARA

2 Nazioarteko Txotxongiloak

Asteburuan Bergarako Taun-Taun taldeak antolaturik, helduci zuzenduriko Nazioarteko Txotxongiloen laugarren jaialdia egin zen.

Bi egunean zehar, Pol-Pol, espetxe zaharra eta Novedades aretoa ikuslez gainezka egon ziren. Jaialdia 1991. urtean egin zen lehenengo aldiz. Orduan lortu zuten emaitza ona ikusirik, urte birik behin antolatzea erabaki zuten.

Jaialdia egin ahal izateko, Bergarako Udalaren diru laguntza jaso dute. Bergararen laguntza handia izan da.



ARETXABALETAK

3 Murruxiko eta haizerrotak

Murruxiko mendi elkarteak igandean Elgeako zentralaren aurka egin zen mendi ibilaldian hartu zuen parte. Amua-

tegi tontorra gainditu ostean, jaialdi txiki bat izan zen Leixargarate aterpetxean. Hitzaldi batek eman zion amaiera.

Mendi ibilaldi honekin, mendi eta ekologia taldeek energia eolikoaren alde dardela azpimarratu nahi dute.

Elgeakoa zentzu gabetzat jotzen dute, ordea.

ANTZUOLA

4 Hiru Truku taldearen bisita

Larunbatean Hiru Truku musika taldearen kantaldia izan zen Guraso Elkarteko zinetokian. Ruper Ordorika, Joseba Tapia eta Bixente Martinez musiko ezagunek osatzen dute hirukote hau.

Euskal Herriko antzinako kantuak jaso dituzte egin dituzten bi diskoetan. Batez ere bizkaiera hitz egiten den eremuko kantak jasotzen ahalegin du dira. Arrakasta handia izan zuten.

ELGETA

5 Erretaulak ikusgai

Azken hilebeteotan birgaitze lan handiak egin dira San Andres eta Santiago erretauletan.

Laraunbatean ikusgai jarri ziren, herritarrek erretaulok izandako aldaketa eta hobekuntza ikusi ahal izateko.

Erretaulak nahiko hondatuta zeuden.



URONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataidè Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76



Jesus Larrañaga.

Utopia Baten Barrenak

Joan den asteartean *Interioridades de una utopia* bere bigarren liburua aurkeztu zuen Jesus Larrañagak Otolara jauz-regian.

Liburuak lau atal nagusi ditu: lehenean On Jose Maria Arizmendiarieta aztertzen du. Bigarren atalean Arrasate Errepublikara garai eta gerra denboran, hau da, egilearen haurtzaroa. Hirugarren eta laugarren atalak dira luzeenak. Hor Arrasateko kooperatiben esperientziaren momenturik adierazgarrienetakoak jorratzen ditu.

Jende asko joan zen Otolara, liburuaren aurkezpena: familiartekoak, lankideak eta kazetariak. Hantxe izan ziren, nola ez, Alfonso Gorroñogoitia aurkezpena egiten eta Jose Maria Ormaetxea, bai eta Antonio Cancelo ere.

Lehenengo liburua orain hamazazpi urte argitaratu zuen: *Don Jose Maria Arizmendiarieta y la experiencia cooperativa de Mondragon*.

Oraingo hau prestatzen hiruzpalau urte egin ditu, baina azkenean argia ikusi du, Tartalo argitaletxeak kalera-tuta. Orain hirugarrena prestatzen ari da buru belarri: *Al éxito por la calidad* izango du izena.

Udalak hipotekatu egin ditu Irgalaren ondasunak Uarkapen



Uharkapeko horma.

Arrasateko Udalak osoko bilkura egin zuen joan den astelehenean. Hainbat gai jorratu zituen, baina hauek dira garrantzitsuenak.

Lehenik eta behin, osoko bilkurak udal pilotalekua erakitzeke proiektua onartu zuen, nahiz eta HBk ezezko botoa eman. Lan nagusia adjudikatzeko klausulak eta pilotalekuaren klimatizazioa adjudikatuko duena ere onartu ziren. Puntu hauetan HBk kontrako botoa eman zuen eta Ezker Batua abstenitu egin zen.

Beste puntu batean, osoko bilkurak aldaketak sartu zituen taberna eta kafetegi berriak egiteko dagoen araudian. Araudi berriak dio ezin-go dela taberna edo kafetegi berririk egin, 30 metrora beste bat dagoenean, salbu eta

hotelen kasuetan. Horrela, Cerrajerako antzinako bulegoetan egiten ari den hotelak jarri ahal izango du taberna. Puntu honetan HBk aurkako botoa eman zuen. Ezker Batua, ostera, abstenitu egin zen.

Zortzigarren puntuan, osoko bilkurak oniritzia eman zion Arrasateko Udalak eta Construcciones Irgalak sinatutako hitzarmenari. Kontua da Arrasateko Udalak 278 milioi pta gastatu dituela Uarkapeko horma egiten eta Irgalak diru hori zordiola. Hitzarmenaren arabera, Irgalak etxe multzo horretan duen ondarea udalari hipotekatuko dio. Bost urteren bueltan ez badio dirua itzultzen, udalak betearazi egingo du hipoteka, dirua

berreskuratze aldera. Erabaki honetan HB eta Ezker Batua kontra azaldu ziren, beren ustez ez baitago bat ere garbi zer gertatuko den bost urte hauetako interesekin.

Azkenik, osoko bilkurak onartu egin zuen CCOOek eta UGTk aurkezturiko mozioa, enplegu egonkor, seguru eta osasungarriari buruz. Mozioaren arabera, udalak berak bete egingo du eta azpikontratatzan dituen enpresei betearaziko die laneko arriskuei aurrea hartzeko legea. Mozioaren ondorioz, gainera, asteartean herriko banderak makila erdian jarri ziren, lanean hildako langileen omenez. Euskal Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Alkartasunak mozioaren kontra eman zuten botoa.

Jaio berri, haur eta neska-mutilentzako moda

- Jantziak
- Zapatak
- Haur-kotxeak
- Haur-aulkiak



Erdiko kale, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 93 33

Pack Joven



Eta orain
Erloju
Deportibo bat
Opari

17.500 pta

Sei hilabetetarako Ukipen Lenteak eta Soluzioen Pack-a.



Egun oso batez gozatu,
eta gero agur.

bakarrik
19.900
pta.gatik

Proba ezazu egun batez



Eguneroko Botatzeko Ukipen lenteak



2 kaja
erosteagatik (3
hilabetetarako
lenteak),
Eguzkitarako
Betaurreko
batzuk opari.



MOTO HONEN ZOZKETA
GURE BEZERO ARTEAN



Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari:
• MULTIOPTICASen kreditu-txartela.
• Diru barik erosteko modurik errazena.
• Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan
aizteztzeko modus izango duzu, batere
errekargu barik.



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
"TRAVEL CLUB"
PROGRAMAKO PUNTUAK



LARRAÑAGA

Ibargarai,16
Tel. 943 761575
BERGARA

J.Carlos Guerra,1
Tel. 943 792995
ARRASATE

J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 889988
ORDIZIA

EIBAR

Bidebarrieta,2
Tel. 943 200522
EIBAR

ERRENTERIA

Pl. de La Esmalteria,7
Tel. 943 517811
ERRENTERIA

Omenaldi beroa Markos Vitoriari

Arrasateko sozialistek omenaldi beroa eskaini zioten larunbatean Markos Vitoria aspaldiko alderdikideari.

Eguerdian omenezko ekitaldi bat izan zen udaletxeko pleno aretoan. Toulouseko ordezkari bat, UGTko beste bat, Gipuzkoako idazkari nagusia eta Euskadiko Alderdi Sozialisteko idazkari nagusia, Nicolas Redondo, mintzatu ziren. Denek laudoriozko berbak esan zituzten omenduaren inguruan.


Hitzaldien ostean opariak, tartean Felipe Gonzalezen argazki bat, haren eskaintzarekin batera. Ondoren, izen berria eman zioten orain arte Herriaren Etxea izan denari. Aurrerantzean "Markos Vitoria Elkarte Sozialista" izango da. Bazkari denboran lagunarte goxoan izan ziren sozialistak, trikitixa eta guzti.

BARNE

HAUTESKUNDEAK

Ostiralean egindako barne hauteskundeetan Borrel irten zen irabazle, pronostiko guztien kontra. Arrasaten, berriz, Almuniak irabazi zuen. Sozialisten idazkari nagusiak 26 boto jaso zituen hemen; Borrelek, ostera, 20. Mondragoeko sozialisten arabera, parte hartzea %56koa izan zen.

Hauxe izan da aldi labur batean, Arrasateko sozialistek egin dituzten bigarren barne hauteskundeak. Lehenak Eusko Jaurlearitzako lehendakari-gaia aukeratzeko izan ziren. Orduan eta orain Arrasateko emaitzak ez dira bat etorri behin betikoekin. Orduan Rosa Diez atera zen irabazle hemen, nahiz eta orokorrean galdu. Ostiralekoan ere, Almunia atera zen irabazle, galtzailea.



LKSk egin duen proiektuak 458 milioi pta.ko aurrekontua izaango du eta hiru zatitan adjudikatuko da.

Udal pilotalekuaren proiektua onartu du Arrasateko Udalak

Arrasateko Udala gobernatzen duen taldeak Ferixalekuko pilotalekuaren proiektua ezagutarazi zuen prentsaren aurrean, osoko bilkurak onartu ondoren. Mahaian Jose Mari Loiti alkatea, Juan Antonio Barriocanal EAko zinegotzia eta Paco Garcia PSOEko zinegotzia izan ziren. Haien ondoan, Juan Antonio Urdangarin, Arrasateko Udaleko arkitekto burua eta Xabier Rozas, LKSk arkitektoa.

LKSk landu duen proiektuaren aurrekontua 458 milioi pta.koa da. Hala ere, adjudikazioa hiru zatitan egingo da. Batetik lan handiak; bestetik klimatizazio lanak eta hirugarrenik, ekipamendua. Ia 1.200 lagunentzako tokia izango du: jarrita 1.042 sartuko

dira eta zutik 150 inguru.

Pilotalekuak frontoi handia izango du, bi pilotaleku txiki pilotariak eta berotzeko, mailak, gimnasioa, jendearentzako aldagelak, pilotariarentzako aldagelak, epaileentzako tokia, biltegia, telebistarako kabina, komunak, taberna, sukaldea, girotzeko instalazioak, harrera, igogailua, eskailerak eta goiko galeria, besteak beste.

Kontratatistak ekainaren 10era arte izango dute beren proposamenak aurkezteko. Astebete beranduago, eskaintzak ireki eta uztaillaren hasieran adjudikazioa egitea espero da. Lanak uztaillaren bukareran hasiko dira seguruenik. Gehienez jota, 15 hilabete izango dute pilotalekua amaitzeko.

LKSk teknikoek neurri bereziak hartuko dituzte umel-tasunik egin ez dadin. ETBko teknikariekin ere izan dira, telebistak eskatzen dituen baldintzen berri jakiteko.

Oraindik ez da erabaki udal pilotalekuak izango duen izena, baina badirudi "Mondragones" izan daitekeela, Juan Bautista Azkarate Arrasateko pilotari famatuaren omenez. Pilotalekua batez ere pilotan egiteko erabiliko da.

HB proiektu honen kontatza azaldu da, oraingo proiektuak jasotzen ez duelako lehengoak jasotzen zituen hainbat zerbitzu.

Maiatzaren 13tik aurrera udal pilotalekuari buruzko erakusketa egingo da Harresi Aretoan.

astea bi hitzetan

■ **Kaleak garbitzeko tresneria berria**

Arrasateko Udalak garbitzeko tresneria berria erosi nahi duela eta, ostiral eguerdian Laukale plazan garbitzeko bi makina berrien erakusketa egin zen. Hantxe elkartu ziren fabrikatzaile frantsesak, inportatzaile katalanak, Elgoibarko komertzialak eta udaleko zerbitzu teknikoak.

Erakusketako izarra, lurra garbitzeaz gain, desinfectatu ere egiten duen

makina izan zen: hogeita bi miloi pta balio du.

■ **Trafiko aldaketak**

Zuetariko batzuk konturatu zineten honez gero, Otorora kalean ezin dela automobilerik pasatu, Monterron jauregiaren parean.

Lehen askotan egiten genuen maniobra hori egiteko, San Frantzisko eliza osteko biribilera joan beharra dago orain eta han buelta eman.

■ **San Viatorreko kultura astea**

Sanvi Kulturaz Blai kultura astea antolatu du San Viator Ikastolak Lehen Hezkuntzarako ikasleekin batera. Ekintzen artean malabarrak, kometak eta animaliak egiteko lantegiak izan dituzte.

Jende ospetsua ere izan da San Viatorren, hala nola Aitor Lopez Rekarte eta Maider Egues, azken hau literatura eta ilustrazio lehia- ketako sariak banatzen.

“(Kooperatibismoa) formula egokia iruditzen zait, lana eta irabaziak denon artean banatzen dituelako. Hala ere, sistema ondo joateko, kultura eta pertsonaren motibazioa landu behar direla uste dut. (...) Helburu beraren atzetik dabilzan giza taldeak dira (kooperatibak eta futbol taldeak). Eta futboleko behintzat, baten bat kanpotik etorri gero, argi azaldu behar zaio zeintzuk diren giza talde horren filosofia eta lan egiteko modua. Kooperatiban ere antzeri izango dela suposatzen dut”.



ANDONI ZUBIZARRETA

TU-Lankide,
1998ko martxoa



35 ORDUKO LAN ASTEA ESKATZEKO

Apirilaren 23an Aordubeteko lanuztea egin zen herriko lantoki askotan, 35 orduko lan astea eskatzeko. Lanuztea administrazio publikoan, garraioetan eta irakaskuntzan igarri zen batez ere. Sindikatuek hainbat kale agerraldi egin zituzten han-hemenka.

OPEL ASTRA BERRIA



TAKOLO AUTOAK

Zatoz OLA eta TAKOLO kontzesionarioetara eta probatu

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tel.: 79 05 86 ARRASATE

DIPLOMA BANAKETA

Mari Karmenek, Nestor Aranaren amak, poz handiz jaso zuen bere semearen diploma. Izan ere, joan den ostiralean banatu ziren Mondragon Eskola

Politeknikoan. Ingeniaritza Sistemen hirugarren promozioiko eta ingeniari teknikoan 26. promozioiko diplomak. Nestor Toulousen zegoen, proiektua egiten. Horregatik amaren laguntza.



Asteburuan Altamirako jaiak ospatu ziren. Auzokoeek ekintza ugari antolatu zituzten: futbito partida, omenaldia auzoko jubilatuei, umeentzako buruhandiak eta txokolatada, besteak beste. Laster San Andresak etorriko dira, gero San Isidroak, gero...

USTARITZEKO NESKA-MUTIKOAK

Joan den astelehenean Ustaritzeko Ikastolako 4. eta 5. mailako neska-mutikoak izan genituen Arko bisitatzen. Lau eguneko txangoa egiten ari dira Hego Euskal Herrian zehar: Hernani, Arrasate, Ozeta, Legazpi, Gernika, Butroe, Bilbo... Benetan txintxo portatu ziren bisitaldian zehar. Izan ontsa!






EGUZKIGRAF
inprimategia

Industriaaldea 1-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABAETA






AUPA XINXANGRE!

Eskubaloi taldeko neskek agur afaria egin zioten Iñaki Madinabeitiari, taldeko ordezkariari, apirilaren 4an. Afalostean Iñaki guapo-guapo jantzi, ondo makilatu eta tabernaz taberna atera zuten, bere gorputz liraina erakuts zezan.

Uztailaren 4an ezkontzen dela eta, taldeko guztiek zorionik beroenak eman nahi dizkiote.

IZENAK

Juan Maria Ezkurra

Mercedeko monja mondragoetarrak monja egin zeneko urrezko ezteiak ospatu zituen apirilaren 19an Alcalá de Henaresen, lagunez inguratutik. Meza Jose Luis Ezkurra anaiak esan zuen. Juana Mariak 73 urte ditu.



URDAIAZPIKO GOZOA


Larunbatean Aita Menni ospitalera hurbildu ziren guztiek kultura ezberdinetako janari tipikoak dastatzeko aukera izan zuten. Han ziren Ekin emakume taldea, Al andalus eta Corazon de Encina elkarteak. Itxura guztien arabera, jendeak ez zion muzinik egin urdaiazpikoari.



Pavimentos AGR
AROSZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 77 11 20 • Faxe: 77 11 20



- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25



1936ko maiatzaren lehenean sozialistak Arrasateko kaleetara atera ziren. Argazkian, portaloi ingurua.

Maiatzaren Lehena: aldian aldiko aldarrikatzeak

ELA, LAB,ESK-CUIS, STEE-EILAS, Ezker Sindikala, EHNE eta HIRU sindikatuek Bilbora deitu diete sindikatu horietako langileei. UGtK hiriburu guztietan egingo ditu kale agerraldiak. CCOOk berriz, Bilbora eramango ditu bere eskabideak. Sindikatuek deialdi bat baino gehiago egin dituzten arren, aldarrikatze bera izango da nagusi kale agerraldi guztietan. Denak 35 orduko lan astearen alde aterako dira kalera. Sindikatu guztiek diote aste-ko lanorduak jaitea langu-neak gehitzeko bide bat dela.

Bihar ostirala, langileen eguna ospatuko da. Orain dela 112 urte, Chicagon (EEBB) hainbat langilek gose grebari ekin zioten, zortzi orduko laneguna eskatuz. Langile haietako lau hil egin zituzten. Bosgarrenak bere buruaz beste egin zuen, hiltzeko eguna iritsi baino lehen. Haien omenez, II. Internazionalak langileen eguna izendatu zuen Maiatzaren Lehena. Harrezkero, urtez urte gogoratzen den eguna da. Bihar-ko ere kale agerraldiak egingo dira Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean.

DEIALDIAK

Arrasateko UGtK Donostiako Alderdi Ederren 11:30etan egingo duen agerraldirako deialdia egin du. CCOOK Bilboko Plaza Berrian egin du berea, goizeko 10:30etan. Gainerako sindikatuek Bilboko La Casillara joango dira, goizeko 11:30etan.

ALDIAN ALDIKOA

Aurten 35 orduko lan astearen aldeko apustua egin dute sindikatuek. ELAko kidea den Luis Migel Saenz *Huitik* dienez "garai bakoitzak bere aldarrikatzeak ditu. Klandestinitate garaian adierazpen askatasuna eta askatasun sindikala aldarrikatzen ziren. Sin-

dikatuak legeztatu eta gero, eskabideak ere aldatu egin ziren".

Frankoren garaian, sindikalismoa legez kanpokoaren sasoian, CCOO eta LAB sindikatuetakoa jendea izkutuan biltzen zen. Arrasaten ere, Makatzenako lokal batzuetan biltzen ziren bi sindikatuetakoa kidea. Kale agerraldi haietan, herriko plazan biltzen ziren langileak. Franco-ren polizia gogor aritzen zen langileria aurka. Maiatzaren Lehena ez zen salbuespena. CCOOko kidea den Benito Garciak gogoratzen duenez "LAB eta CCOO batera ateratzen ginen langileen

egunean. LAB gehienetan gure atzetik joaten zen eta zalaparta hasten zenean, erdian harra-patzen gintuzten. Independentziaren aldeko oihuren bat entzutea nahikoa izaten zen Guardia Zibila egurra ematen hasteko. Kale agerraldia hasi aurretik, bagenekien gure kontra etorriko zirela eta lekuren batean biltzeko abisua pasatzeko ohitura izaten genuen, gehienetan lasterka irten behar izaten ginen eta. Orduko eska-bideak, biltzeko askatasuna eta lan amnistia izaten ziren”.

Garai hartan Arrasateko zenbait lantegi ixteko arris-kuan zeuden. Egoera horren aurka eta kaleratutako langileak berriz hartzeko aldarrikatzeak egiten ziren.

1977an, sindikatuak legeztatu ondoren, eskabideak aldatu egin ziren. Juan Ramon Garai, Ezker Sindikalako kideak gogoratzen duenez “eskabide ekonomiko-politiko-sozialak egiten genituen. Soldaten igoera eskatzen genuen, baina baita autode-terminazio eskubidea ere. Langileen indarra, langileen bata-sunean zegoen; orduko Maia-tzaren Lehena borrokoa eguna izaten zen”. Horren adibide dira Elma, Bastida edo Kutxarera lantegiak ez ixteko egin ziren kale agerraldiak.

Baina Arrasateko kale agerraldiak, beste herrietan egiten zirenak bezalaxe, hiriburu-tako kontzentrazioek ordezkatu zituzten. Indarrak batu nahian, probintzietako deialdiak egiten hasi ziren alderdi sindikalak.

LABeko kidea den Garbiñe Aranburuk dioenez, “kale agerraldiak deszentralizatu-rik egiteak argazki gehiago esan nahi du, baina bestela argazki handi bakarra dauka-zu. Iaz Arrasaten deitu genuen agerraldian 600 bat lagun bildu ginen eta oso gustura gelditu ginen; hala ere, aurtun Bil-bora joango gara”.



1983an Arrasaten egin zen kale agerraldia.



1977an Donostiara joan ziren Arrasateko sindikalistak.



1978an Donostian izan ziren arrasatearrak Maiatzaren Lehenean.

GAZTEAK MAIATZAREN LEHENEAN

Egun 35 orduko lan astea eskatzen dute sindikatuak. Lanpostu gehiago sortzeko alternatiba izan daitekeela diote eta aldi berean gazteak lane-ra gerturatzeko bidea.

Garai batean lanpostua lortzea errazagoa zenean langile gazteak ez zuten inongo oztoporik izaten beren esku-bideak aldarrikatzerakoan. Benito Garciaren ustez gazteak oso ondo prestatuak ateratzen badira ere, gero ez dute ezer eskatzen. “Gu ez ginen horrelakoak; gure garaian kontua eskatzearekin meatxatzen genituen enpresarioak eta hori ez zitzaenez komeni, gehienetan kontuan izaten zituzten gure eskaerak. Gazteei adierazpen askatasuna kendu die-te horrenbeste kontratu motarekin”. Gaur egun gazteak beranduago hasten dira lanean eta hori dela eta, UGTko antolakuntzarako idazkaria den Damaso Casadok dioenez, “gazteak oraindik ez daude lan munduan integratuak baina lanean hasten direnean beste langile guztiak bezala errei-bindikatzen dituzte beren eskubideak”.

Garciak dioenez, “ez dago dudarik kontratu motek eragin izugarria izan dutela hone-tan; lehen lanpostu asko zeuden eta prestatutako jendea gutxiago izaten zen. Gaur egun, berriz, alderantziz gertatzen da. Hori dela eta, gazteei sozialean batzeko eska-tuko nieke. Lehen frankis-moaren aurka eta askatasun sindikalaren alde batu bagin-en, eurak kapitalismoaren aurka batu behar dira, geu bai-no zapalduago daude eta”.


Atzean geratu da sindi-kalismoa bera auzitan zego-en garaia.

Marijo Deogracias ■

Maiztegitarrak: hiru belaunaldi egunkari partiketan

Orain hogei bat urte jarri zuten Biteri kaleko egunkari kioskoa, baina Rosa Mari Maiztegitik argi gogoratzen du sei urterekin hasia zela egunkariak saltzen, osaba Benitori laguntzen.

Izan ere, Benito Balanzategi izan zen familiako lehen bizibide hau hartu zuena. Mantxua zen eta lanik gabe zegoela, DV saltzeko aukera etorri zitzaion, on Calisto Ieregiri esker. Benitok Portaloian saltzen zituen egunkariak. Beranduago, Correo ere hasi zen saltzen, Angel anaiaren laguntzarekin; honek bizikletan egiten zuen banaketa. Garai gogorak ziren, Rosa Mari gogoratzen dituen moduan, "sasoi hartan mundu guztiak *La Voz de España* irakurtzen zuen eta". Konpetentziakoa zen *Txumetak* saltzen zuen *La Voz*. Garai hartan egunkariak 0,75 pta balio zuen.



Egunkaririk salduenak Biteri kaleko kioskoan

1. DV	600
2. Egin	190
3. El Mundo	60
4. Marca	60
5. Deia	50
6. El Correo	50
7. El País	40

Aldizkaririk salduenak
1. Quo. 2. Muy Interesante. 3. ¡Hola! 4. Pronto. 5. Mía.

Pia arrebari esker, Musakolan hasi ziren egunkariak saltzen. Piak, Rosa Mariren amak, etxean saltzen zituen egunkariak. Igande goiz guztiak etengabeko errosarioa ematen zuten: jendea eskaileretan gora eta behera, kazeta erostera.

Benito eta Pia antzina hil ziren. Angel, berriz, iaz, aspaldi erretiratu zen arren. Haien ondorengoez daramate negozioa gaur egun. Kioskoa Rosa Mari Maiztegitik eta Manu Poyato haren koinatuak daramate. Oporretan, Mario eta

Mikel haien semeak ardurazten dira salmentaz.

Manuk irekitzen du kioskoa, goizeko 05:00etan. Rosa Mari ordubete beranduago etortzen da. Eguerdian 13:15ak arte egiten dute lan. Arratsaldean, ostera, 17:00etatik 20:00etara. Goizeko 08:00etarako, partiketa eginda dago. Egutero-egutero 300 pasatxo egunkari banatzen dituzte etxez etxe. Egunkari eta aldizkari bakoitzetik %20 irabazten dute.

Sasoi batean 1.600 Diario Vasco ekartzen zizkieten saltzeko. Gaur egun askoz ere gutxiago, batez ere auzoetan, Eroskin eta okindegietan ere saltzen hasi direlako. "Eske-rrak ordenadoreei buruzko aldizkariei eta bideoei, bestela, egunkariekin bakarrik ezin izango genuke bi familia honetatik bizi", dio Rosa Mari, konbentzimendu osoz.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

TXOKO TABERNA

€ure berezitasunak pintxo eta
mckau gozoak

LAN ESKAINTZA

AUKEA Kirol Erakundeak lan-poltsa hau osatzeko deia egiten du:

**IGERILEKURAKO SOROSLEA
ATEZAINA
ARROPAZAINA**

Oinarriak: Musakolako Kiroldegian
Eskaerak aurkezteko epea: maiatzaren 12a,
berau barne.



ARRASATEKO UDALA

AUKEA
Kirol erakundea

Renault Megane, autorik salduena arrasatearren artean

1997an, iaz, 813 automobil berriren alta eman zen Arrasateko Udaleko errol-dan. Denak ziren SS-5341-AX matrikularen ondorengoak.

Beheko zerrenda biak aztertuz gero, hainbat ondorio atera liteke.

- Renault Megane izan zen gure artean arrakasta handiena izan zuena.

- Ondo hornitutako (airbag, ABS...) erdi mai-

lako berebilak nagusitu ziren, txikien kaltetan.

- Berebil handiagoak ere ondo saldu ziren: Ford Mondeo, Nissan Primera, Renault Laguna...

- Atentzioa ematen du zein ondo saldu ziren asfaltikoak diren zenbait automobil: Ford Escort, Peugeot 306, Renault 21...

- Argi xehetasun honekin: taulan agertzen ez bada ere, iaz goi mailako

46 automobil berri saldu ziren gure artean: Audi (23), BMW (4) eta Mercedes (19). Horrek esan nahi du jendea geroz eta diru gehiago ari dela gastatzen automobiletan, hauek gainerako guztiak baino dexente garestiagoak dira eta.

- Azken urteotan bezala, Renault eta Ford izan ziren gehien saldu ziren markak.

Arrasatearren aukerak

	Saldutako autoak
1. Renault Megane	60
2. Opel Astra	41
3. Ford Escort	39
4. Ford Mondeo	31
5. Nissan Primera	28
6. Peugeot 306	28
7. Seat Ibiza	28
8. Renault Clio	27
9. Renault Laguna	27
10. Renault 21	24

Markarik salduenak: 1. Renault (175). 2. Ford (115). 3. Opel (84). 4. Nissan (77). 5. Peugeot (61).

Euroa

Noiz aldatu beharko ditut dauzkadan pezetak eurotan?

Beranduenik, 2002ko ekainaren 30ean. Sei hilabete lehenago, berriz, hau da, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera, has zintezke dirua pezetatik eurotara aldatzen. Sei hilabete horietan gerta dakizuke zuk eurotan ordaintzea eta bueltak pezetatik jasotzea, gerora berriz ere aldatu beharko dituzunak. Ekainaren 30a baino lehenago dirua aldatzea ahazten bazaizu, Espainiako Bankuan trukatu ahal izango duzu, batere kosturik barik.



Euro baten balioa

167,8 PTA



LASAGABASTER-en



DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Naranja Mecanica	7	6	1	0	45	23	13
Sokoakoak	7	6	0	1	37	22	12
Aurrera Bolie	7	3	1	3	28	21	7
Jotakabau	7	2	3	2	17	23	7
Bar Nuevo	7	3	0	4	37	32	6
Insert Coin	7	3	0	4	30	32	6
Ke Oxtias!	7	1	0	6	19	50	2
Zotz	*	*	*	*	*	*	

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	7	7	0	0	52	22	14
Ac Surkos	7	5	0	2	42	30	10
Koka Juniors	7	3	2	2	44	23	8
Pepelus	7	3	2	2	35	29	8
Betrayer	7	3	1	3	28	31	7
Lauterbrunnen	7	2	1	4	32	44	5
Jako al Rey	7	2	0	5	20	39	4
RR Tamagotxi	*	*	*	*	*	*	

Emaitzak

A taldea

Naranja mecan 9 - Sokoakoak 2
Bar Nuevo 1 - Jotakabau 2
Zotz 0 - Aurrera bolie 1
Insert coin 5 - Ke oxtias!!! 4

B taldea

Argi ibili 6 - Koka juniors 3
Betrayer 1 - Rr tamagotxi 0
Jako al rey 5 - Pepelus 3
Ac Surcos 8 - Lauterbrunnen 5

D taldea

Fraguel gol 1 - Da iristu 0
Jey holidgans 3 - Irati STS 5
Kkjauri 2 - Garaje oscar 9
Los Heredia 1 - At celaya 0

E taldea

Bar Estrella 4 - Branka taberna 2
Lorategi Potroak 1 - Txeyenex 0
Totem 4 - Leya 6
Aldibi 15 - DKB 2

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	7	5	1	1	44	21	11
Garage Oskar	7	5	1	1	35	21	11
Fraguel Gol	7	4	1	2	17	12	9
Los Heredia	7	3	2	2	17	17	8
Kkjauri	7	2	2	3	24	44	6
Jey Holidgans	7	3	0	4	28	26	6
DA Iriztu	*	*	*	*	*	*	
AT Celaya	*	*	*	*	*	*	

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Aldibi	7	6	0	1	57	18	12
Lorategi Potroak	7	6	0	1	42	30	12
Bar Estrella	7	4	1	2	25	23	9
Branka Taberna	7	4	0	3	40	32	8
Leya	7	1	3	3	39	50	7
Totem	7	2	1	4	22	21	5
DKB	7	1	1	5	23	61	3
Txeyenex	*	*	*	*	*	*	

3. Aldiko taldeak

A taldea

Naranja Mecanica
AC Surkos
Fraguel gol
Branka Taberna

B taldea

Argi ibili
Garage oskar
Bar Estrella
Jotakabau

D taldea

Irati STS
Lorategi Potroak
Aurrera Bolie
Pepelus

E taldea

Aldibi
Sokoakoak
Koka juniors
Los Heredia

Hurrengo partidak

Zaldibar

Maiatzak 1, ostirala

11:00 Lorategi Potroak - Aurrera Bolie
12:00 AC Surkos - Fraguel Gol
13:00 Irati STS - Pepelus

Maiatzak 2, larunbata

11:00 Garaje Oscar - Bar Estrella
12:00 Aldibi - Los Heredia
13:00 Sokoakoak - Koka Juniors

Maiatzak 3, igandea

11:00 Argi Ibili - Jotakabau
12:00 Naranja Mecanica - Branka Taberna

Uribe auzoa txapelketa

Hurrengo partidak

Iturripe A

10:00 Trotabares - Zigorrolako Mutilzarrak
11:00 Felpudo Maldito - Argi plastic
12:00 Spoting - Xhaass
13:00 Bortxitxak - Doble Cero
14:00 Blind - Hilarion Jatetxea
15:00 Milan Toca - Rotor De Bolbogrado
16:00 Munartxiki - Decadencia
17:00 Mendizabal P de P - El milagro de Baut.
18:00 Medio Grano - La ostra Azul
19:00 Piernodoiuna - Sathe Kom. Alpargat

Iturripe B

13:00 Potrosorri - Cartonajes Igamo
14:00 Sporting de Trompetas - Elvis Team
15:00 Rex 22 - Txotx
16:00 Bar Nuevo - Babajana Sexy
17:00 Itxaro Pena - Ainarexia Kalandrax
18:00 DKB - Dribling
19:00 Kamasutra - Balon Rojo

Maiatzak 2, larunbata

Iturripe A

10:00 Medio Grano - Spoting
11:00 Astoen Villa - Hilarion Jatetxea
12:00 Bar Nuevo - Dribling
13:00 Potrosorri - Xhaass
14:00 Bortxitxak - Blind
15:00 Elvis Team - Rotor De Bolbogrado
16:00 Felpudo Maldito - Kalandrax
17:00 Babajana Sexy - Zigarrolako Mutilzarrak
18:00 Kartonajes Igamo - Balon Rojo
19:00 Rex 22 - Munar Txiki

Iturripe B

13:00 Ac Massive - Racing Molotov
14:00 Milan Tokao - DKB
15:00 Txotx - Doble Cero
16:00 Mendizabal P de P - Itxaro P. Ainarexia
17:00 Sport. de Trompetas - Piernodoiuna Sa.
18:00 Mr Magoo - Lontxo taberna
19:00 Trotabares - Komando Alpargat

Emaitzak

A taldea

Elvis Team 5 - Komando Alpargat 5
Babajana Sexy 7 - R. Bolbogrado 5
Bar Nuevo 5 - Zigarrola. Mutilzarrak 2
Sporting de Trompetas 1 - Dribling 8
P. Sathellites 2 - Milan Tokao 3
Trotabares 3 - DBK 4

B taldea


Fraguel Gol - Leya TMT
Cartonajes Igamo 2 - La Ostra Azul 3
Potrosorri 4 - Balon Rojo 3
Mr Magoo 2 - Xhaass... 6
Medio Grano 2 - Lontxo Taberna 6
Kamasutra 3 - Spoting 0

D taldea

Txotx 0 - Decadencia 6
Akta 0 - Doble Cero 1
Astoen Villa 4 - Borrock & Roll 7
Rex 22 6 - Hilarion Jatetxea 3
Bortxitxak 8 - Munar Txiki 3
Penering Lapsus 0 - Blind 1

E taldea

P3000 14 - Kalandrax 5
Argi Plastic 3 - El milagro Bautista 4
Chuleton Rovers 0 - Racing Molotov 1
Mendizabal P de P 1 - Alai Goz. 0
AC Massive 4 - Itxaro P. Ainarexia 7



Aldibi



**Aldibi,
etorkizunari
aurrea
hartzuz.**

- Ordezko pieza originalak
- Salmenta osteko zerbitzua
- Finantzaketa zure neurrirá
- Aseguru desberdinak zure zerbitzura
- Autoen alokairuén enpresa eta renting-a
- Aukerako 100 autotik gora, marka guztietakoak
- 3.000 m² automobilarari eskainita



Zatoz eta ezagutu gaitzazu!



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

VOLVO

Mondrakar, S.L.



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



**MITSUBISHI
MOTORS**

Aldikar autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 71 20 02 / Faxe: 79 65 65

L.O.G.S.E BATXILERGOAK

Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa
Natur eta Osasun-Zientzien Batxilergoa.

HEZIKETA ZIKLOAK

Erdi mailakoa:

ERIZAIN-TZA-ZAINKETA AUXILIARRETA
TEKNIKARIA (1.400 ordu praktika eta guzti)

Goi mailakoa:

INGURUGIRO-KIMIKA (1.400 ordu praktikak barne)



Aurreinskripzioa: maiatzaren 4tik 18ra.

Idazkaritzako ordutegia: 09:00etatik 13:00etara eta
15:00etatik 18:00etara.

e-mail: info.svi@educanet.net

<http://www.educanet.net>


Tel.: 79 04 11 • Faxe: 77 00 73

Harremanetan jartzeko: Idoia Urrutia/Blanca Martínez



ZURE ETORKIZUNA

AUKERATU



Haur taldeko futbol atezaina

KEPA ARKAUZ

*Nire atezainik gogokoena
Zubi izan daiteke*

— Zer moduz doa denboraldia?

— Hasi berriak gara, oraintxe hasi gara denok batera jokatzeko. Lehen gure artean jokatzeko genuen eta orain, berriz, Gipuzkoako talde guztiak ari gara hor. Gainera, besteak lehendik ari dira jokatzeko eta esperientzia handiagoa dute, baina nahiko ondo pasatu dugu.

— Gogorra da atezaina izatea?

— Ez, gustatu egiten zait. Urduri jartzen naiz, baina ondo konpontzen gara eta gustura nabil.

— Gol asko sartu dizkizute?

— Bai, baina hasi berriak gara. Penalty bat ere gelditu dut. Horrelakoetan poz handia sentitzen duzu. Gainera 2 eta 1 galtzen gindoazen eta bost minutu gelditzen ziren partida amaitzeko.

— Nori utziko zenioke gola sartzea?

— Inori ere ez.

— Zein izan da partidarik zailena?

— Real Sociedad taldearen aurka jokatuakoa. Hantxe 5 eta 0 galdu genuen eta hemen 6 eta 4. Gipuzkoako jokalarionenak biltzen dituzte talde horretan eta oso onak dira.

— Zein da zure atezainik gogokoena?

— Ez daukat faboritorik; agian Zubi, gertukoa izateagatik. Etxeberria gertuagokoa da, baina Athleticen jokatzeko du.

Ni Bartzelona zalea naiz eta Baia ere gustatzen zitzaidan, baina orain ez duenez jokatzeko, ez daukat faboritorik.

SASKIBALOA Txapeldunen aurka



Loiolaren aurka aritu ziren joan den asteburuan arrasatearrak.

Azkenean 74-68 galdu zuen saskibaloia taldeak. Bigarren zatian zerbait hobeto aritu baziren ere, ezin izan ziren markagailuan aurreratu. Datorren astean ez dute erronka erraza izango: Patronato taldearen bisita izango dute Iturripen. Patronato sailkapeneko lehen tokian dago. Beraz, partida interesgarria izan daiteke, arrasatearrak azken lekuan sailkatuak daude eta.

ATLETISMOA Gipuzkoako laugarrenak



Arrasate Kirolak Atletismo taldeak laugarren tokia lortu zuen

Gipuzkoako taldekako txapelketan. Mailu jaurtiketan, pertika jauzian eta altuera jauzian lortu zituzten emaitzarik onenak. Aitor Urizarrek bigarren tokia lortu zuen mailu jaurtiketan. Urizarrek bere marka gainditu zuen, 46,54ko jauztiketa eginez. Jonatan Perezek ere, bere marka pertsonala hobetu zuen altuera jauzian, 3,70eko jauzai batekin. Jokin Dz. Lezana hirugarren izan zen altuera jauzian. 1,84 m. salto egin zuen eta bere marka pertsonalaren azpitik geratu zen.

Anoetan izan zen Enrike Kabiketa ibilketaria ere. Kabiketak 5 km.ko ibilketa proban hartu zuen parte. Emaitza ona lortzea espero zuen arren, helmugaratzeko 80 m. falta zirenean, kanporatu egin zuten.

FUTBOLA Garaipena Atxabalpen



Mondrak 2 eta 1 egin zuen Trintxerpeko taldearen aurka.

Atxabalpen gelditu ziren puntuak eta Mondrak hirugarren postuan darrai,

bigarrenetik bi puntura baino ez. Hurrengo jardunaldian, Hondarribira abiatuko dira arrasatearrak. Lasai joango dira Hondarribira, aurreko itzulian, 2 eta 0 irabazi zuten eta.

Lehen mailako gazteek Martutenen aurka jokatu dute asteburu honetan. Aurreko asteburuan Atxabalpen aritu ziren, Urrietaren aurka eta 4 eta 0 irabazi zuten. Bestalde, bigarren mailakoek ere irabazi egin zuten Beti Gazte taldearen aurka jokatuakoa partidari. Arrasatearrek 3 eta 1 egin zuten. Datorren asteburuan Antoniano taldea izango dute aurrez aurre.

TXIRRINDULARITZA Bost lasterketa asteburuan



Asteburu honetan Dorletako Ama taldeak hainbat lasterketatan arituko dira.

Fagorreko gazteak Lazkaora joango dira larunbatean, Lazkaomendiko XXII. proba. Hamaika txirrindulari izango dira, 81 Km. egiteko. Segurara ere joango dira Fagorreko gazteak. Santa Cruz Memorial Javier Ormazabal lasterketan arituko dira igandean. JMAko bigarren mailako kadeteak Labegarietako XXXVI. sarian arituko dira larunbatean. Lasterketa 16:30etan hasiko da. Born Jay taldekoak Lizarrara eta Berriatuara joango dira asteburuan.



IBON SARASOLA (HIZKUNTZALARIA)

“Gernikan domeka idatziko”

Presaka eta korrika agertu zen Ibon Sarasola Arrasaten. Barzelonatik etorria zen bezperan. Kataluniako hiriburutik Donostiara. Donostiatik Gasteizera, eta Arabako hiriburutik gurera, hitzaldia ematera Monterron jauregiara. Liburuaren Eguna zen. Hitzaldia eman aurretik, elkarrizketa hau egin genuen.

— Nolakoa da euskarazko komunikabideetan erabiltzen den euskara?

— Ez da oso ona. Alde batetik, ez delako erreal. Eta bestetik, ez delako ona. Euskara kaskarra duen jende asko ari da idazten. Honi gehitzen badizkiogu azken urteotan euskararen inguruan sortu diren ajeak, bada esan liteke orohar ez dela ona, salbuespenak salbu.

— Zer iritzi duzu tokian tokiko euskara erabiltzearen inguruan?

— Zer da tokian tokiko euskara erabiltzea? Niretzat da ortografia batua, morfologia batua, eta hortik aurrera, nahi duzuna. Bizkaieraren eremuan, esate baterako, ez dira berdinak Mondragoeko eta Gernikako kasuak. Hemen, Gernikan ez bezala, badago bide bat batasunaren alde egiteko. Gernikan *domeka* idatziko nuke. Arrasaten, berriz, *igandea*.

— Prest ikusten dituzu gaur egungo ikastola eta eskoletako irakasleak bigarren batasunari ekiteko?

— Inondik ere ez. Horieta gehienek, eta nahiago nuke oker banenbil, pasatu zituzten azterketak, lortu dute postua eta orain bertan goxo egiten dute, hor konpon beste guztia. Horregatik, aldaketak goitik eragin behar dira, Hezkuntza Sailetik.

— Zure liburuan —*Euskararen Batasunaren Ajeak*— bere-

ziki kritikoa zara Elhuyar, UZEI, ETB eta HBrekin.

— Horiak baino gehiago, horien ama kritikatzan dut: *Anaitasuna* aldizkaria. Garai hartan bi eredu zeuden: Koldo Mitxelenaarena eta *Anaitasuna*arena, azken hau erradikalagoa: euskara esentzialista, arkaismoz josia eta populista proposatzen zuen. Azkenean, berau nagusitu zen, PNVren utzikeriagatik.

— Gure kazetariak gogorra egiten zaie *errefuxiatu* barik *iheslari* esatea, edo *manifestazio* gabe *kale agerrialdia*.

— Hori ohitura kontua da. Segituan jartzen zara. Dena

“Ikastola eta eskoletako irakasleek egin zituzten azterketak, lortu dute postua eta orain bertan goxo egiten dute, hor konpon euskararen inguruko auziak”



"nuker; Arrasaten, igandea"

den, *iheslari* gogor egiten zaien horiek *Herria* irakurri beharko lukete. Ikusiko lukete *iheslari*, *pilota partida* eta *errugbi* bezalako hitzak sarri-sarri agertzen direla.

— Behin baino gehiagotan aipatu izan duzu askotan modu batean hitz egin beharko dugula eta beste modu batean idatzi. Nolatan?

— Suitzan irakasleek eskolak hizkuntza estandarrean ematen dituzte. Galde egiten zaienean, ordea, beste erregistro bat erabiltzen dute. Hortik zehar asko gertatzen da hori. Gure artean ere, nik semearekin ez dut hitz egiten aitarekin bezala.

— Noiz kaleratuko da *Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua*?

— M letran ari gara lanean. Urte pare batean egin liteke. Kontua da egoera txarrean ari garela lanean. Hiztegi

Batua inportantea izango da. Hori atera eta gero, Euskaltzaindia Eusko Jaurlaritzara joan beharko litzateke eta bete-arazteko eskatu.

— Oraindik ere euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara hiztegiak erabiltzen ditugu gehien. Gaur egun, hiru ditugu nagusi. Zer alde dago euren artean?

— *3000 Hiztegiak* ez ditu ondo betetzen lexikografiaren legeak. Hala ere, aurrerapauso handiak egin ditu *Anaitasunaren* eredutik hona. Elhu-

yarren arazoa beste bat da: gaztelaniari men egiteko banderaduna da. Dena den, hauek ere aurrepauso handiak egin dituzte. Voxen hiztegia Isabel Larriganek egin zuen batez ere. Nik gaztelania-euskara egin nuen. Adierak kontestualizatu egiten ditu. Horretan eredu da.

— Hiru mondragoetarri buruz galdetu nahi dizut. **Pedro Ignazio Barrutia.**

— Berea baldin bada *Acto para la Noche Buena*, lan ona egin zuen. Herri antzerkian

dugun gauzarik onenetakoa da.

— **Sebero Altube.**

— Sebero *Erderismos* da, nik bat ere maite ez dudana liburua. Egin zituen gauzak, baina ez dakit *Erderismos*-ek noraino egin dion on edo kalte euskarari.

— **Jokin Zaitegi.**

— Euskara eta euskal kultura eteteko zorian zeudela, bera izan zen klabea hori gerta ez zedin. Hori euskaldun guztiok eskertu behar diogu. Itzultzaile gisa gogorragoa da, baina hor ere lan aipagarria egin zuen.

— **Egia da Euskal Herri-
ra zatozela bizitzera?**

— Bai. Datorren urrian edo, Euskal Herriko Unibertsitatara etorriko naiz, eskolak ematera baino, ikerkuntza praktikoa egitera. Euskara Institutuan hasiko naiz seguru asko. ■

“Seberok egin zituen gauzak,
baina ez dakit haren *Erderismos*-ek
noraino egin dion on edo kalte euskarari”

IRLANDA UZTAILEAN

11 eta 18 urte bitarteko gazteentzako ikastaroak

- Ingelesa eta kirol programak
- Konfiantza osoko familiak
- Galway hirian, Irlandako kostaldean

Nagusientzat ere baditugu
ikastaro bereziak



Parlane

ARRASATE

Tel.: 943 - 77 06 83

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Ispiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 77 10 95
ARRASATE

Anboto, Aizkorri eta Gorbea, datorren zubian egiteko tontorrak

Zubi honetarako plana proposatzen du AEDK: bizkar zorroa aldean hartu eta ez ahaztu euritakoa. Umorea eta ongi pasatzeko gogoia poltsan sartu. Jakina! Eta ibiltzeko gogoia. Horrela prest egongo zarete "Hiru haundixak hiru egunetan" egiteko. Aizkorri, Anboto eta Gorbea, hiru egunetan.

Dagoeneko seigarren urtea da AEDK ibilaldia prestatzen duela, baina aurtengoa da Euskal Herriko beste herrialde batzuekin elkarlanean egiten den lehenengoa. Guztira Euskal Herriko 50 gazte baino gehiago joango dira.

"3 haundixek 3 egunetan" ez da mendi lehiaketa. Ez du axola nor heltzen den lehenengo, edo denborarik hobereena nork egiten duen. Gauza garrantzitsu bakarra, gazteen arteko topagune izatea da. Euskal giroa eta primerako egunak igarotzea.

Egunetan sei-zazpi orduko ibilaldiak egingo dira,



Izango al dute eguraldi ona zeharkaldia egiten duten bitartean!

martxa lasaian. Lehen menditontorra Aizkorri izango da; bigarren egunetan Anbotora igoko dira. Ibilaldia Gorbean amaituko dute. Zalduondotik Muruara izango da txangoa.

Gauzak errazteko, bi azpiegitura taldek zuzenduko dute ibilaldia. Hauek eramango dute bazkarien eta afa-

rien ardura. Mendizaleen bizkarreko zorroak ere eurek eramango dituzte. Horrela, pisurik gabe ibiliko dira besteak. Gauak Gatzagan eta Urkiolan igaroko dituzte. Gaubela bereziak prestatuta daude. Kantaldia, magoa, eztabaidak...

Orain, zerura begira daude antolatzaileak, eguraldiak zer

egingo zain. Aurreko aldietan ez dute eguraldia lagun ona izan. Elurteak, euri zaparradak, hotza... kideak izan dituzte, baina, halere, ongi pasatu dute. Antolatzaileek, txantxetan diote "3 ekaitzak 3 egunetan" izena aldatzea ez legokeela gaizki. Ikusi egin behar aurreko eguraldia nola portatzen den.

**TOLDOS
LECE C/B**

Kataide Industrialdea, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 79 23 83
Faxe: 77 04 45

**Eguzkiari
aurre egiten
diogu inork
baino hobeto**

**BAZTER-ALDE
J A T E T X E A**

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • AREIXABALETA
Tel.: (943) 79 24 58

ALBERTO URRETXO, MONDRAGON BRASS TALDEKO PARTAIDEA

“Gu ez gara musika klasikoa egiteko elkartu”

Mondragon Brass taldeak ez du oraindik aurkezpenik egin Arrasaten, ez dugu herrian ezagutzen. Metal musika egiten duten hamahiru lagun taldea da. Aurreko larunbatean kontzertua eskaini zuten Donostian eta kritika ezin hobekak jaso dituzte. Pozik daude lortutakoarekin. Baina nortzuk dira Mondragon Brass?



eta uste dute aspertu egin behar direla, ezagutzen ez dutelako. Entzun eta gero konturatzen da jendea zer den.

— **Mondragon Brass Arrasateko musika taldea da?**

— Ez, ez. Duela hiru urte, taldea sortu genuenean, Arrasateko jendeak sortu genuen, baina gaur egun Euskal Herriko hainbat orkestratan eta taldetan banaturik gabiltzan hamahiru lagun gara. Arrasatekoak lau lagun bakarrik gara. Gainerako bederatzia kanpotarrak dira. Brass musika egiteko elkartu gara, eta profesionalak izan nahi dugu.

— **Brass musika zer da?**

— Brass ingelesez letoia da, metala. Brass musika ezin da deskribatu: indartsua baina gozoa da, gogorra eta samurra. Estilo askotako musika jotzen dugu, baina metalezko tresnatarra moldatuta. Taldean hamaika metal tresna eta bi perkusiozko daude. Bide berriak egiteko elkartu gara. Jendeak ez du Brass musika ezagutzen.

— **Zergatik ez da brass musika ezagutzen?**

— Jendeari beldurra ematen dio brass kontzertu batera joateak. Pentsatzen du musika klasikoko kontzertu bat entzungo duela. Eta ez da horrela. Gu ez gara musika klasiko egiteko elkartu, hori beste orkestratan egiten dugu. Ikusleek ez dakite zer den

— **Nolakoak dira zure kontzertuak?**

— Itxi begiak eta pentsatu mendira zoazela lasai-lasai, baina beti dago tentsio piska bat, ez dakizu zer aurkituko duzun hurrengo bihurgunearen atzean. Ondoren, tontorrera helden zara, eta ogitartekoa jaten duzu gustura.

Horrelako zerbait izan daiteke gure kontzertua. Kontzertuetan atsegin dugu ikuslearengandik hurbil egotea. Kontzertuei buruz hitz egiten dugu, publikoarekin egon nahi izaten dugu.

— **Aurreko astean aurkezpen kontzertua izan zitekeena egin zenuten Donostian. Nola joan zen?**

— Jendea oso pozik geratu zen. Lehen kontatzen nuena da, ezagutu arte jendeak ezin dezake jakin zer egiten dugun, zerbait berria delako. Gero aho zabalik geratzen da.

Kritika onak izan ditugu eta, egia esan, ez genituen espero. Gu geu ere harrituta geratu gara.

aste gazte

■ UDALEKUAK

• Diputazioak antolatutako udalekuean, 7-13 urte arteko haurrentzat bigarren zozketarako epea: maiatzaren 19tik 25era.

■ UDA ABENTURA

• Kirol abentura izeneko kanpainan parte hartu nahi duten 14 eta 17 urte arteko gazteentzako izenematea: maiatzaren 12tik 26ra.

■ HIZKUNTZA EGONALDIK

• Segurako aterpetxean ingeles ikasteko egonaldiak 14 eta 17 urte bitarteko gazteentzat. Izenematea: maiatzaren 12an hasi eta 26 arte.

■ BEKAK:

• Hizkuntza ikastaroak atzerrian, Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasleek alemana, frantsesa eta ingelesa ikasteko aukera dute, baldin eta izaera orokorreko ikasketak bekaren onuradun baldin badira. Epea: maiatzak 24.

• Atzerrian 98/99 ikasturtean eta EAerentzat interesgarriak diren gaietan espezializatorako ikasketak egiteko bekak. Epea: maiatzak 27.

■ LANA

• Enkarterrietako Mankomunitateak bi administrazio laguntzaile behar ditu. Epea: maiatzak 7.

• Getxoko Musika Eskolarako, klarinete, flauta eta biolontxelo irakasleak eta gitarra eta jazz adituak behar dira. Epea: maiatzak 12.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

“Gure kontzertuak mendiak ematen duen atseginaren parekoak dira”

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Santa Teresa kalean. 5. solairuan dago. 69 m². Tel.: 79 09 48

• Zarautzen etxebizitza salgai. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua eta garajea. Prezio onean. Tel.: 83 54 46.

2. Erosi

• Arrasateko erdialdean igogailua duen etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 77 02 79.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokatzen da San Joan auzoan. 1. Solairua. 3 logela eta egongela. berogailua ere badauka. Tel.: 79 77 13.

• Duplexa alokagai, hondartzatik gertu, Zarautzen. Uztailean eta abuztuan, egoera onean. Tel.: 83 56 36 (gaueko 21:00etatik aurrera).

3. Errentan emateko

• Bizkaia etorbidean etxebizitza alokatzen da. Hiru logela, Bi komun. Guztiz jantzia. Kanpo aldera ematen du. Tel.: 945 17 44 53.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza txikia, atikoa edo teilatupea alokatuko genuke, merke. Tel.: 70 09 52. Gaeuz.

• Gela baten bila nabili Arrasaten. Tel.: 94-41 62 675. Iñigoz galdetu.

• Bi logelako etxebizitza alokairuan hartuko genuke, Arrasaten. Tel.: 939 57 45 31 (Nekane, Unai).

5. Etxe konpartituak

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Logela aparte izango du. Interesatua baldin bazaude, etorri ikustera: Bañez doktorea, 2. 3. ezkerria.

GARAJEAK

7. Saldu

• Bañez Doktorea kalean garajea salgai. Prezio ona. Tel.: 79 93 91. Jose Mari.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deltu behar da iragarkia jartzeko.

• Garajea salgai Roneoko etxeetan. 1. solairuan, garaje itxia. Tel.: 79 18 70

• Olarte kalean garaje itxia salgai. Tabako dendaren azpian. Tel.: 79 91 52.

9. Errentan emateko

• Uribe auzoan garajea salgai. Tel.: 79 27 45.

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100 m²ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

• Ilepaindegia saltzen da. Sta. Mari-na, 14 beheka. Tel.: 79 73 43.

14. Errentan emateko

• Ibaie ilepainenegiak lokaia alokatzen du Estetizien batentzat. Ilepainendegia Makatzenan dago, 10.

zenbakian. Tel.: 76 69 15.

• Taberna eskuz aldatzen da. Tel.: 77 14 93.

• San Andres auzoan dagoen denda jabez aldatu edo saldu egingo da. Lanean dabil eta errentagarria da. Tel.: 79 96 39.

15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek lokal bat errentan hartuko luke. Tel.: 79 53 18. Asier.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska arduratsua gertu dago orduka garbiketarak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel.: 71 53 74. Deitu goizez edo 20:00etatik aurrera.

• Neska batek etxeko lanak eta umeak zainduko lituzke. Tel.: 78 33 15.

• Esperientziadun klinika laguntzaileak pertsona helduak zainduko lituzke, etxeetan edo ospitaleetan, gaeuz ere bai. Tel.: 79 34 09. Amaia.

• Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta ume bat zaindatzeko. Tel.: 76 11 57.

• Emakume euskalduna behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 02 81.

• Esperientziadun neska prest gozeta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Aterteak ere egingo nituzke. Tel.: 79 97 81.

• Emakumea prest etxeko lanak egin eta umeak nahiz nagusiak zaindatzeko arratsaldez. Tel.: 79 07 73.

18. Eskaerak

• Euskaldunon Egunakaria Arrasaten banatzeko pertsona bat behar da. Euskaraz jakitea eta autoa edukitzea beharrezkoa da. Tel.: 79 75 58. Juli. Arratsaldez.

• Zarugalde 50ean 20-45 urte arteko emakumea behar da denda lan egiteko. Interesatutak iluntzeko 19:00 etatik 20:00etara pasatu bertatik. Tel.: 77 13 91

• Lagun euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 56 30. Gaeuz deitu.

• Ilepainenegi batek eskuko ile lehor-gailua ondo erabiltzen dakien ilea-paintzailea behar du. Tel.: 79 03 63.

• Aretxabaletan neska euskalduna behar da arratsaldez umeak zaindatzeko. Tel.: 79 47 85.

• Neska bat behar da jatetxe batean zerbitzari lanak egiteko. Kontrata egingo zaio. Tel.: 945 44 50 95.

19. Denetarik

• Suitzara *au pair* joateko neska bat behar da. Frantses apur bat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

• Enkarguzko margolanak (kuadroak) egiten ditut. Informazio gehiago 77 01 07 telefonora deituta. Ana.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• DBH eta LOGSEko klaseak ematen dira. Klase txikiak eta irakaskale esperientziadunak. Tel.: 79 56 78.

21. Eskaerak

• Frantseseko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 78 08 24. Deitu 20:00eta-

tik aurrera. Maite.

- 2. LOGSEko ikasle bati matematika eskolak emateko irakaslea behar dugu. Tel.: 79 44 11. Anastasio edo Pura.

- LOGSEko 1. mailako ikasle batek matematikako eskola partikularrak hartuko lituzke. Tel.: 79 68 84.

- Fisika, kimika eta matematikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 79 87 19. Leire. 16:00etatik 18:00etara edo 20:00etatik 22:00etara.

- Biologiako ikasleak matematikako eskolak behar ditu. Tel.: 79 42 64. (Gaueko 22:00etatik aurrera).

lan orduetan eta 77 09 27 gauean.

- Kart kompetizion pieza askorekin salgai. Tel.: 77 07 74 lan orduetan eta 77 09 27 gauean.

- 205 GTX SS-Y autoa salgai dago. Egoera onean. Tel.: 79 68 63.

- Karabana bat salgai dago. Adria Prima 4,10 m.koa. Merkea. Tel.: 79 18 22.

- Citroën C-15 RE Club salgai. SS-L. 68.000 Km. 150.000 Pts. Tel.: 77 07 42.

DENETARIK

26. Saldu

- Epson markako orratzeko inprimagailua salgai. Oso egoera onean. Tel.: 71 50 72.

- Macintosh ordenadorea salgai. Centris 650 modelo. 12 mega RAM. 80 megako disko gogorra. 7.1. Sistema. Tel.: 79 97 60.

- Mendiko bizikleta bat saltzen da. Neurri ertainekoa eta merkea. Tel.: 77 08 02

- Josteko eta zig-zag egiteko Sigma

makina industrialia salgai. Tel.: 79 42 70.

- Pisbul txakurkumeak salgai. Pantxo eta Patrick odolekoak. Txakurkume marroiak Rednoserekin eta tigre era-koak zuriarekin. Prezio interesgarria. Deitu gaueko 21:00etatik aurrera. Tel.: 943 79 37 17.

- Piragua salgai. Invader Light motakoa. Estalkia, arrauna eta salba-jantziak. Dei egin 79 71 44 telefonora, eta Albertoz galdetu.

- Bizikleta salgai. 54 neurriduna. Orbea Ziroko modelo. Tel.: 79 77 54. Dani.

27. Erosi

- Bigarren eskuko kafe errotatxo erosi-ko nuke. Tel.: 79 23 58.

29. Eman

- Bost hileko txakur mestizoa oparitutako nuke, ondo zaintzekotan. Tel.: 79 90 46.

31. Galdu

- Iturriotzeko Rumba tabernatik Madaleraingo bidean Lotus markako erlo-

jua, urre kolorekoa, galdu nuen. Tel.: 79 42 65. Kuntsueloz galdetu.

- San Andreseko Errebuelta kalean jertse gris bat galdu nuen apirilaren 3an. Norbaitek aurkituz gero, dei egin 79 09 18 telefonora.

- Apirilaren 17an txakurra galdu zitzaigun Gesalibarren. Setter ingelesa, txuria eta urtebetekoa. Lur da bere izena. Topatzen baduzu deitu, mesedez, 79 33 87 telefonora.

- Belarritakoa galdu nuen joan den larunbat arratsaldean, Otalora kalean. Tel.: 79 95 48.

32. Aurkitu

- Opari bat aurkitu nuen otsailaren 19an Garibai etorbideko telefono kabinan. Tel.: 77 11 68. Jon.

37. Bestelakoak

- Irrati programa baterako, munduan zehar ibili den jendearekin kontaktuan jarri nahi dugu. Arrasate Irrati-ko telefono hauetara deitu: 79 58 40 (erantzungailua) edo 79 58 77.

- Artzain txakur aleman emea bilatzen ari naiz, nirearekin ernaltzeko. Nirea artzain txakur aleman-altsaziarra da. Tel.: 79 03 37 edo 79 36 12.


MOTORRA

23. Saldu

- Furgoneta salgai. Ford Transit 2500 turbo diesel eta karrozatua. 3 urtekoa. Tel.: 71 44 16

- Renault 21 TXE salgai, egoera onean. 350.000 pta. Tel.: 79 43 49 eta 907 48 06 99. Ander.

- Motorra salgai. Montesa kota 314 Trial. Urarekin hoztua. Tel.: 77 07 74



WERU
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

**maiatzak 5
Asteartea**

LOTSA BARIK

Maier Urangak aurkeztuta.
Magazine gaztea, freskoa.
Saltsa, umorea eta jende
ospetsuz beteriko saioa.
Gaueko 21:30etan

**maiatzak 6
Asteazkena,**

MAHAINGURUA

Gaia: Eibar - Gasteiz
autobidea. Mikel Irizarrek
aurkeztua.
Gaueko 21:00etan

**maiatzak 7
Osteguna,**

KUKARATXA MOTEL

Betirtze Inurritegi, Unai
Iparragirre eta Alazne Ruiz de
Munainek aurkeztuta.
Gaztetxoentzako lehiaketa,
froga dibertigarriak, karaoke,
play-back, ezusteak eta opari
asko.
Arratsaldeko 19:15etan
eta gaueko 21:30etan



ARRASATE

Hamabostero gonbidatu berriak.
Ez galdu aste honetako.

Adi egon,
laster finalerdiak helduko dira eta!
ECUADOR Bidaiak-ek eskainitako
PORT AVENTURAKo bidaia jokoan!



**ZUZEN-ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA**



Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide industrialdea • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75



Aspaldiko kantauk gogoratzten dituzte Kutrelaxen.

Musikaz amets egitera

Kaitin Allende mikrofonoan eta Belen Carenas teknika-ria ostegunero izango dituzu Arrasate Irratian gaueko 10:00etatik, 11:00etara.

— Zer sartzen da Kutrelax saioan?

— Saiatzen gara historia egin duen musika berreskuratzen, 60, 70, 80 edo 90. hamarkadetan zehar asko entzun diren kantak sartzen ditugu. Saioaren hasieran Eus-

kal Herrian aspaldi kantatzen zirenak. Jarraian, kutrearen tartean sartzen gara, Mari Trini, Marisol, Peret... Ostean, musika etnikoaren txokora heltzen gara. Bidaia horretan zehar beste leku batzuetako musikaz gozatzen dugu.

— Zergatik zaharrarekiko zaletasuna?

— Aspaldiko single eta binilo doinuak ditugu atsegin. Lehengo musikak his-

toria egin duenez, gazteriari zer egiten zen entzuteko aukera emango diogu.

— Aspaldiko musika bakarrik sartzen duzue?

— Bai, baina ospetsuak ziren haiek gaur lan berriak kaleratzen dituztenean albiste dira Kutrelaxen.

Gurean, kutreak eta ez hain kutreak entzungo ditugu, gehienbat aspaldikoak, hori bai.

Arrasate Irratia 107.7 FM

LARUNBATA

9:00 **Egunaren harian.** (albistegia)
9:30 **Musika**
10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte, Garbiñe Perez eta Belen Aranbarrarekin.
11:00-12:00 **Zoroklasikoak.** Musika klasikoak, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaizola eta Eusebio Iñarrarekin.
12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA

GOIZ-EGUERDIZ

9:00 **Egunaren harian.** (albistegia)
9:30-11:00 **Goizoro.**
11:00-13:00 **Gaueko** programen errepikapena.
13:00-14:00 **Goizak gaur.** (Euskadi Irratia).
14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena

20:30-21:00 **Almeneko saioa.**
21:00-22:00 **Jokoz kanpo.** Kirolak, Gorka Etxabe, Belen Carenas eta Rafa Mungiarekin.
22:00-23:00 **Soloik Solo.**

Astearte

20:30-21:00 **Almeneko saioa**
21:00-22:00 **Hitza ta Ekintza.**
22:00-23:00 **Euskal Festa.** Goizane Arana, Maider Errarte, Dabid Iglesias eta Garbiñe Perezekin.

Asteazkena

20:30-21:00 **Almeneko saioa.**
21:00-22:00 **Musika**
22:00-23:00 **KK2A.**

Osteguna

20:30-21:00 **Almeneko saioa**
21:00-22:00 **Kaleko Hautsak astinduz.**
22:00-23:00 **Kutrelax.** Belen Carenas eta Kaitin Allendekin.

Ostirala

20:30-21:00 **Planning Prest.**
21:00-22:00 **Music Box.**
22:00-23:00 **Txerrendantza**
23:00-24:00 **Draxtor.** Makina musika.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 2	ASTELEHENA, 3	ASTEARTEA, 4	ASTEAZKENA, 5	OSTEGUNA, 6	OSTIRALA, 7
Astean zehar eskainitako programa interesgarrienen errepika.	13:30 Astebete. (Errepika)	13:30 Mondrasport. (Errepika)	13:30 Kaleidoskopia. (Errepika)	13:30 Mahaingurua. (Errepika)	13:30 Kukaratxa Motel. Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Gazteto-endako lehiaketa umoretsua.
13:30 Kukaratxa motel.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	19:15 Kukaratxa Motel. Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Gazteto-entzako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak.
14:15 Munduari bueltak	21:30 Mondrasport. Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak... eta lehiaketa astelehenero.	21:30 Lotsa barik	21:30 Mahaingurua. Eibar-Gasteiz autobidearen inguruan. Mikel Irizarrek zuzenduko du.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	21:30 Astebete
				21:30 Kukaratxa Motel.	



Bedia zinemako kanpoaldean atera zen argazki hau 1936ko Maiatzaren Lehenean. Bedia zinema UCE-Meko bulegoen ondoan zegoen. Arrasateko sozialistek ekitaldi politiko bat antolatu zuten Bedian, ondoren kale agerraldia egiteko asmoz. Ekitaldia egin zen eta baita kale agerraldia ere, aldizkari honen

azaleko argazkiak ondo erakusten duen moduan.

Kalera irten aurretik, ordea, herriko sozialisten buruek argazki hau atera zuten. Ezkerretik eskuinera: Segundo Olazagoitia, Salvador Lazpiur, Iburguren, Celestino Uriarte, Marcos Vitoria, ezezaguna, Eustaquio Amilibia eta Ruiz de Alegria Porra. Ezezaguna eta Eustaquio Amilibia izan ziren Arrasate kan-

potik etorritako hizlariak.

Hura izan zen askatasunean egin ahal izan zuten azken Maiatzaren Lehena. Franco hil arte ez zen horrelako aukerarik berriz errepikatuko.

Argazkia: Arrasateko UGT Berriemailea; Markos Vitoria

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 79 22 55 79 14 25

GORKA
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

Zatoz gurekin, zatoz Institutura!



BATXILERGO GUZTIAK

- Izadi eta Osasun-Zientzien Batxilergoa.
- Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa.
- Teknologia Batxilergoa.

BIDE IREKIAK

Ikasle bakoitzari egokitutako Bideak ditugu.

HIZKUNTZAK

Hizkuntzetan eskaintzarik zabalena:

- Ingelesa.
- Alemaniera.
- Frantsesa.
- Italiaera.

MODALITATEAK ETA AUKERAKO JAKINTZAGAIAK

Modalitate eta Aukerako jakintzagaiak, besteak beste:

- Errepresentazio-sistemak
- Elektroteknia.
- Jarduera fisikoa, aisialdia eta osasuna.
- Mekanika.
- Psikologia.
- Antropologia.
- Laborategi teknikak.
- Ekonomia eta Enpresa antolaketa.
- ...

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Ibilgailuen elektromekanika.
- Erizaintzako zaintza osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.

III. MAILAKO MODULUA

- Sistema automatiko eta Programagarriak.

AURRERANTZEAN EZARRIKO DIREN HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Ingurugiro-kimika.
- Galdaketa eta Pulbimetalurgia bidezko produkzioa.
- Automozioa.

AURRE-INSKIPZIOA

Maiatzaren 4tik 18ra

MATRIKULA

Uztailaren 1etik 10era

 **arrasate
aretxabaleta
INSTITUTUA**

ARRASATE: Sta. Teresa, 25 • 20500 ARRASATE • Tel.: 79 83 00 / 79 44 47 • Faxa: 79 44 37 • E-mail: iarrasate@edunet.iber.net.es.
ARETXABALETA: Etxebarri auzoa, z/g • 20550 ARETXABALETA • Tel.: 79 79 00 / 79 79 43 • Faxa: 77 09 55 • E-mail: aretxainsti@jet.es.

Berri gehiagorako



ARRASATE
79 83 00 / 79 44 47
ARETXABALETA
79 79 00 / 79 79 43

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

FAGOR



BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42